

## IZENDEGIA

## EUSKAL IZENDEGIAZ

1976-IV-30

*Jose M<sup>a</sup> Satrustegi***Bigarren argitalpena**

Datorren azaroan egingo du lau urte "Euskal Izendegia" oinarriturik argitaratu genuela. Lege giroak bultzaturik, muga estuetan egin genuen gure lana orduan. Dakizuenez, erdal itzulpena zuen izenik ezin zer sartu euskal zerrendan, jaiot-agirietan baztertuak baitziren. Eta itzulpenik etzutenak, nundik zetozen garbi esanez. Hala ere, oztoporik aski sortu digute gure izenek denbora huntan.

Hori delata Arana-Eleizalderen zerrendako izen gehienak baztertuak gelditu ziren, eta berdin han hemenka ikusten ziren beste zerrenda batzu. Azken orrietan, bigarren mailakoak izan balira bezala sartu genituen herriak zebiltzanetari-koak.

Iruñeko "Vasconia" diruetxeak Euskaltzaindiaren izendegi ofiziala bezala argitaratu zigun, eta berrogei ta hamar mila ale banatu dira. Errekesta oso ona izan duela esan dezakegu eta, azken aldi huntan, eskasten hasia da. Berriz argitaratzeko prest daudela jakinarazi didate. Hau da, hain zuzen ere, egun nekarren berria.

Lau urte huntan, beste alde, egosketa handia izan da izen hauen inguruan. Legegizon batzuen aurrean hutsaren pare zen gure izendegia; gauza barregarriak jaso ditugu: denborá asko ez duela, *Ainara* deitu nahi zuten hautxo bati 'Golondrina' ezarri zion Gipuzkoako epaile jakintxu batek. Gehienek hala ere on hartu dute, eta dagoen eran idazteko, Euskalt-

zaindiko agiria eskatzen dute. Bata bestez, aurrerakada ezin amestua nabari da liburuska argitaratu zenetik.

- *Geure idazki zaharretako bildumak,*

- *Izen herrikoiak*

- *Aurreko izendegietan arrera ona izan zutenak.* Euskal izen mordotxo bat besterik izango ez badugu ere, gure nortasuna ezin du galdu lanak. Azken denbora hauetan aurpegira botatzen diguten akatsa, erdalkeria hutsean gabiltzalakoa da. Txarra bazen garbizaleen gehiegizko berriketa, geureaz ustutzen gaituen gehiegizko erdarazaletasuna ez dakit hobe den.

Kriterio bat behar beharrezkoa dugu: nundik datozen usain usnaka ibili gabe, jator antzekoak jaso egingo nituzke eta, komeni etzaizkigunak utz. *Gorka, Ander, Iker, Jurgi,* eta abar, sartu; *Errapel* (Rafael) eta antzekoak baztertu, mendietan dabilten gazteei errapel izenak beste zerbait ekartzen bai die gogora.

Izendegiaren lana ez da bat batean egitekoa; hainbeste mendez bazterturik egondako itsaskina, berri berritik hasten denaren pare jo dezakegu. Giro ederra sortu zaigu eta hori asko da. Beste alde, ez da laboratoriorio eta asmakizun hutsez egitekoa ere; herriarekin batera joan behar dugu, eta azken hitza zein hartu eta zein utz, berak du. Gure eginkizuna geroari begira gauzak zentzuz eramatea da.

Kristau herriko izen guziak euskeraz ikusi nahi lituzkete-nek, beste zerbait nahi dute; ez da euskal izendegiaren egitekoa munduan zehar diren izenen biltzea. *Margarita* itzulpena nahi duenari, hitz hori erdara purificatua dela eta bere horrekin gelditzeko esan dezaiokegu lotsaren gorridurarik gabe. Datorkigun giro berrian euskal eragina barnean daramanak izen jatorra aukeratuko du, eta itzulpenaren beharrik ez du izango.

## Aldaketak

Duela lau urte egindako lanak bere akatsak bazituen.

a) Bi aldetara idatzi izan genuen zenbait hitz. Hala *Leyre/Leire, Idoya/Idoia, Amaya/Amaia.* Oso sartuak daude hitz hoiek Nafarroan, eta ezin gogortasunez moztu.

b) Bigarren istilu bat H-rena izan zen. Aritz/Haritz, Harkaitz/Arkaitz. Aurrekoaren arrazoin bera zuen alde batetik, hizki hori ontzat ematen ez dutenena, beste alde. Arazo txarra izango zen talde bat Izendegiaren aurka agertzea.

d) Hirugarren puntu bat *j* hizkiarena. Hemen ez da idazkera kontua bakarrik; esaera ere bai. Jon/Ion, Jurgi/Iurgi, Jasone/Iasone, eta beste zenbait.

Orain da zer komeni den erabakitzeko garaia.

Garrantzi gutxiago izanagatik, Codes/Kodes, Coro/Koru ala Koro, eta halakoren bat edo beste ere badugu; bainan, beste aldera. K-rekin idatzi genituen eta erantzunak aurka agertu dira.

Azkenekotz, Mari, Pedro, Juan, eta beste halakoren baten otopoa ugaritasuna da. Hogeia, eta gehiago aldaketa duen ize-narekin zer egin! Zein aukeratu? Peru, Peyo, Piarre, Beti, Betiri...

Egungo gure erabakia izango da:

- 1) Bigarren argitalpenari baimena ematea.
- 2) "Vasconia" diruetxeari eskaintzea.

## **EUSKAL IZENDEGIAREN AZKEN ORRAZTAPENAK**

*Donostian, 1977-II-24*

*J. M. Satrustegi*

Igazko apirilaren 30eko Batzarrean Euskaltzaindiak erabakitako neurrian "Euskal Izendegiaren" bigarren argitalpena prestatzen ahalegindu naiz. Denon gogoia da apain eta txukun ateratzea eta, hortarako, urriaren 29an bildu zen "Euskal Izenen" batzordea, aurrez zabalduko orriei emandako erantzunak aztertzeko. Ortografia eta idazkera kontua zen gehien bat gure arazoa. Bikotasun eta ezbeharrak zuzentzen joatea, batez ere.

Geroztik, aurtengo urtarrilaren 4an onartua izan da Korreetan herrialdeetako izenei buruzko erabakia. Hori delata, gure lana lenbait lehen argitaratzeko garaia oraintxe dela uste dugu. Hitzurre bat egin diot, eta hau da: